

Guadalupeko Ama eta Unamuno

Hondarribia, 40. zk., 1990-09: 8.

Jakina denez, Guadalupeko Amaren debozioa Extremaduran sortu zen; Espainiako lurralde honetan dagoen Guadalupe izeneko herrian,

hain xuxen. eta Guadalupeko izena duen ibai-bazterrean.

Unamuno joan zen oporraldi batean bisitatzeraz; lagunekin gehienetan Espainian eta Portugalen ikustaldi hauek ("Tierras, andanzas y visiones", Aguilar, 1953) egin ohi zituen bezala. Askotan eramaten dut nire bidaietan irakurtzeko, ia 700 orrialdeko liburuxka bera neurritz oso egokia delako, eta neuk kritikatu izan dudan gure herriko gizon handi honen asmoak, iriziak eta grinak ezagutzeko jakingarri zaidalako.

Bere poesian, saio serioetan, nivoletan eta antzerkian ez bezala agertzen baitira.

Oinez igo zen mendiartearen gora, askotan egiten zuen modura, eta itzulera gurdi edo karro baten gainean egin zuen.

Jakingarriak dira mende honen haseran (1909?) egin zituen oharrak: Bidetik heltzerakoan ikusi zuen han goien Jeronimoen ordeak XIVnean eraikia izan zen monastegiaren haundiera, Guadalupe herriaz inguratua.

Amabirjinaren irudia bera, behiaren atzetik zihoan abeltzain batek aurkitu omen zuen. Hemen ez da gordetzen Arantzazuko agerpenaren misteriorik, baizik eta Sevillatik mairuengandik ihesi zetozen elizgizonek utzi omen zuten menditarteko toki ezkutuan. Bertako liburuetan esaten dena, zera da, San Gregorio Magno Aitasantuak Sevillako artzapezpikua zen San Leandrori bidalia izan zela, aidanez. Eta monastegiko eliz ederrean jarri zutela herriak gurtu zezan.

Unamuno berak esaten du, maiz gertatzen zaion gisa, hantxe aurkituko zukeela agian bera beti bila zebilen bizileku baketsua.

Bake horren bila, (edo erostera!, dio nere maliziak) etortzen omen ziren Ameriketatik itzultzen ziren aberats handikiak Amabirjinari bitxiak eskaintzera, han ikusi zuen Unamunok beste eskaintzen artean Felipe II.ak urrez eta harri preziatuz apaindutako kapa ederra eta Jeronimoek, fraileek, erregeak berak baino handi eta ederragoa (!) eskaini ziotena ere bai Unamunori ez zaio atsegina aberastasun arranditsu hau eta zera dio, nahiago lituzkeela berak eliz hartan gordeak zeuden eskuz iduriztatuak izan ziren Koroko liburuak, behar bada liburu mota hartan Espainiako sortarik ederrena.

Hau du gogoko, eta gero, sakristian gordeak dauden Zurbaranen kuadro zoragarriak.

Monastegi hau eraiki zuten Jeronimoak bere ordearen desegin zutenean, Prantziskotarrak etorri ziren (1902). Bitartean, Guadalupeko debozioa

Ameriketara asko zabaltzen zen, baina ziur asko, Ameriketako irudiak ez dituzte bertatik irten ziren aberastasunen parekoekin Ama Birjina jantzi ahal izan.

Honek zerbait adierazten du, batez ere hemendik bi urtera Bostgarren Mendurrena ospatzeko direnean!: urrea honantz eta sainduak harantz.

Nolanahi, Euskalerrian bada Guadalupe izeneko beste toponimorik: Legorretako auzategi bat, Iguelegain mendiaren oinetan, Oria ibaiaren ertzean, bere ermita politarekin; baita Nafarroako Sorladan ere.

Hara Unamunok bisitatu zuen Guadalupeko Ama aipatu ondoren, Euskal Herriakoetara, eta bereziki Hondarribiakora itzuli: Hemengoa ez zen hain arranditsu jantzita helduko XVnean ekarri zutenean eskainitakoa urtero debozios betetzen dion herria du hemen gure Zeruko Ama beltxaranak, urrezko koronaz kanpo apaingarririk preziatuena.